

**ERABAKIA, 2017.eko maiatzaren 8koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, 2017ko EKITALDIAN (IRAILA-ABENDUA) ARABAKO CAMPUSEAN LANDA PRAKTIKAK EGITEKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIARI BURUZKOA.**

Deialdi honen helburua da unibertsitate instalazioetatik kanpo landa praktikak egiteko beharrezkoak diren bidaia gastuak finantzatzeko diru laguntzak esleitzea, betiere irakasgaien izaera dela-eta praktika mota horiek egin beharra dagoenean ikasleek prestakuntza osoa jaso dezaten.

Aurrekoaren arabera, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteari eta eskumenak eskuordetzeari buruzko 2017ko urtarrilaren 25eko Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen Erabakiak emandako eskumenak erabilita, errektoreorde honek hau

## **EBATZI DU**

### **1. artikulua.**-Deialdia.

Arabako Campusean 2017ko (irailetik abendura) ekitaldian landa praktikak egiteko diru laguntzak emateko deialdia onestea.

### **2. artikulua.**-Oinarriak

Deialdi hau arautzeko oinarriak onestea. Erabaki honi atxiki zaizkio oinarriok.

### **3. artikulua.**-Argitaratzea.

Deialdia eta berori arautzeko oinarriak Arabako Campuseko iragarki taulan eta UPV/EHUren iragarki taula korporatiboan (ehutaula - Arabako campusa) argitaratzea, baita campuseko webgunean ere.

**RESOLUCIÓN DE 8 de mayo de 2017, DEL VICERRECTOR DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, POR LA QUE SE CONVOCAN AYUDAS PARA LA REALIZACIÓN DE PRÁCTICAS DE CAMPO EN EL EJERCICIO 2017 (SEPTIEMBRE-DICIEMBRE).**

El objeto de la presente convocatoria es la adjudicación de ayudas destinadas a la financiación de los gastos de desplazamiento que conlleva la realización de prácticas de campo fuera de las instalaciones universitarias, para aquellas asignaturas que, por su propia naturaleza, requieran este tipo de prácticas para la completa formación docente del alumnado.

Por todo lo expuesto, y de acuerdo con las competencias que tiene atribuidas por Resolución de 25 de enero de 2017, de la Rectora de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias, este Vicerrector

## **RESUELVE**

### **Artículo 1.**-Convocatoria.

Aprobar la convocatoria para la concesión de ayudas para la realización de prácticas de campo en el Campus de Álava en el ejercicio 2017 (septiembre-diciembre).

### **Artículo 2.**- Bases reguladoras

Aprobar las bases reguladoras que regirán dicha convocatoria, y que se adjuntan a la presente resolución.

### **Artículo 3.**-Publicación.

Publicar la convocatoria y sus bases reguladoras en el Tablón de Anuncios del Campus de Álava y en el Tablón de Anuncios Corporativo de UPV/EHU (ehutaula - Campus de Álava), Asimismo, estarán disponibles en la página web del Campus.

**4. artikulua.- Errekurtsoa.**

Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka eta berorren oinarrien aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean aurkeztu ahal da administrazioarekiko auzi errekurtsoa kasuan kasuko administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean.

Gasteizen, 2017ko maiatzaren 8an.

**Artículo 4.- Recurso.**

Contra la presente resolución y sus bases, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación ante el mismo órgano que lo dictó, o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo correspondientes en el plazo de dos meses.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de mayo de 2017.



**Iván Igartua Ugarte**

UPV/EHUko Arabako Campuseko errektoreordea  
Vicerrector del Campus de Álava de la UPV/EHU